Agintariak eta Langileria

Izendapenak, Egoerak eta Gorabeherak

OSASUN ETA KONTSUMO SAILA

6139

1196/2009 EBAZPENA, ekainaren 30ekoa, Bilboko Osasun Eskualdeko zuzendari gerentearena, zeinaren bitartez Francisco Javier Laiseca Sagarduy jaunari esleitzen baitzaizkio Bizkaiko Osasunbarrutiko Bilboko Eskualdeko San Adrian-Zabalako Lehen Mailako Atentzioko unitateburuaren funtzioak.

Bilboko Osasun Eskualdeko gerentearen urtarrilaren 19ko 702/2009 Ebazpenaren bidez, San Adrian-Zabalako Lehen Mailako Atentzioko unitateburua izendatzeko deialdi publikoa onartu zen.

Deialdiaren 5. oinarrian ezarritakoari jarraituz, epaimahaiak destinoak esleitzeko proposamena bidali dio eskualdeko zuzendari gerenteari, gerenteak ebazpen lotesle baten bidez onar dezan.

Horregatik, indarrean dauden legeek langileen gainean zuzendaritza honi emandako ahalmena erabiliz, hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Bizkaiko Osasun-barrutiko Bilboko Eskualdeko San Adrian-Zabalako Lehen Mailako Atentzioko unitateburuaren funtzioak Francisco Javier Laiseca Sagarduy jaunari esleitzea.

Bigarrena.– Javier Laiseca Sagarduy jaunak gestio- eta asistentzia-lanak egingo ditu, zuzenean eta hierarkikoki Osasun Eskualdeko gerentearen ardurapean dagoela. Lehen Mailako Atentzioko unitateburuaren funtzioak betetzen diharduen bitartean, bai eta funtzio horiek amaitzen direnean ere, bere kategoriari dagokion lanpostuaren titularitatea gordeko du, eta lanpostu horren oinarrizko funtzioak betetzen jarraituko du.

Hirugarrena.– Esleipen honek ez dakar, inola ere, Lehen Mailako Atentzioko unitateburuaren funtzioak edo ordainsariak finkatzerik, lanpostu berariazko gisa; izan ere, noiznahi erabaki ahal da inoiz funtzio horien esleipenari amaiera ematea.

Laugarrena.– Funtzio horiek betetzen dituen bitartean, Francisco Javier Laiseca Sagarduy jaunak ardura

Autoridades y Personal

Nombramientos, Situaciones e Incidencias

DEPARTAMENTO DE SANIDAD Y CONSUMO

6139

RESOLUCIÓN 1196/2009, de 30 de junio, del Director Gerente de la Comarca Sanitaria de Bilbao, por la que se asignan las funciones de Jefe de Unidad de Atención Primaria de San Adrián-Zabala, Comarca Bilbao, Área de Salud de Bizkaia, a D. Francisco Javier Laiseca Sagarduy.

Mediante Resolución 702/2009, de 19 de enero, del Gerente de la Comarca Sanitaria de Bilbao, se aprobó convocatoria pública para la designación de Jefe de la Unidad de Atención Primaria de San Adrián-Zabala.

Conforme a lo previsto en la base 5 de la convocatoria, ha sido elevada por el tribunal al Director Gerente de Comarca, para su aprobación con carácter vinculante y mediante resolución, propuesta de asignación de funciones.

Por lo expuesto, y en uso de las facultades en materia de personal atribuidas en la legislación vigente a esta Dirección Gerencia,

RESUELVO:

Primero.– Asignar a D. Francisco Javier Laiseca Sagarduy las funciones de Jefe de Unidad de Atención Primaria de San Adrián-Zabala, Comarca Sanitaria de Bilbao, Área de Salud de Bizkaia.

Segundo.– D. Francisco Javier Laiseca Sagarduy ejercerá la doble función gestora y asistencial en dependencia directa y jerárquica del Gerente de la Comarca Sanitaria. Tanto mientras desarrolle las funciones de Jefe de la Unidad de Atención Primaria como cuando estas finalicen conservará la titularidad de la correspondiente plaza de su categoría, cuyas funciones básicas continuará desempeñando.

Tercero.– La presente asignación en ningún caso supondrá la consolidación de las funciones ni las retribuciones de Jefe de la Unidad de Atención Primaria como puesto específico de trabajo, pudiéndose acordar discrecionalmente la finalización de la asignación de dichas funciones.

Cuarto.– D. Francisco Javier Laiseca Sagarduy percibirá, mientras desempeña dichas funciones, un

bereziko osagarria kobratuko du. Osagarri hori 3/1987 Errege Dekretu Legeak arautzen duen berariazko osagarrian txertatuko da, eta bere zenbatekoa eta ezaugarriak uztailaren 23ko 195/1996 Dekretuaren I. eranskinean ezarrita daude.

Bosgarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea.

Seigarrena.– Deialdiaren 8. oinarrian xedatutakoari jarraiki, ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahalko zaio Osakidetzako zuzendari nagusiari, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita hilabeteko epean.

Bilbao, 2009ko ekainaren 30a.

Bilboko Eskualdeko zuzendari gerentea,
JESÚS M.ª LARRAÑAGA GARITANO.

complemento de especial responsabilidad, incardinado en el complemento específico regulado por el Real Decreto Ley 3/1987, cuyas cuantías y características se determinan en el anexo I del Decreto 195/1996, de 23 de julio.

Quinto.– Ordenar su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Sexto.– Con arreglo a lo establecido en la base 8 de la convocatoria, contra la presente Resolución podrá interponerse recurso de alzada ante el Director General de Osakidetza-Servicio Vasco de Salud, en el plazo de un mes, contado a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Bilbao, a 30 de junio de 2009.

El Director Gerente de la Comarca Bilbao,
JESÚS M.ª LARRAÑAGA GARITANO.